# DEBA BERRI

Debako udal aldizkaria - Revista municipal de Deba



# Hirigintza aldaketa Osio gunean

# Modificación urbanística para el área de Osio

Martxoa-Marzo 2017 • 8. zenbakia

© Argitaratzailea/Edición: Debako Udala
Egilea/Realización: Kaioa a.s.p.
Ale kopurua/Ejemplares: 2500
L.G./D.L.: SS-918-2012



Esaten dute bidea urrats txiki askok osatzen dutela, batzuetan urrats txiki-txiki askok. Antzeko zerbait gertatzen da udal politikaren gestioan; hori da, behintzat, guztiok nahi izaten duguna.

Kontenedore berriak jartzea, hondakinen birziklapena bultzatzeko, zubiko erreformak, haurrentzako parkeak egokitzea, Osio auzorako hirigintza plan berria onartzea, gizarte politika eta hirugarren munduari laguntzeko politika berriak zabaltzea eta hobetzea, eta beste hainbat eta hainbat gauza.

Jarduera horiek guztiak dira Udal honek baliatu nahi dituen urrats txikiak, bide luze bat egiteko, hain zuzen ere gure herriaz harro egoteko motiboa emango digun bidea egiteko.

Eta nahiko genukeen boladarik onenean ez bagaude ere, duda izpirik ez daukagu denbora gutxi barru gauzatuko ditugula gure agendan apuntatuta ditugun beste urrats batzuk, beste proiektu batzuk, orain artekoak baino garrantzitsuagoak diren urratsak eta proiektuak, betiere herritarrek beren konfiantza ematen badigute.

Beste behin, gure sentimendua transmititu nahi dizuegu debar guztioi: proiektu guztiak gauzatzeko eta Deban bizi garen guztion bizi baldintzak hobetzeko, beharrezkoa da guztion elkarlana. Udal hau irekita dago debar bakoitzak egin eta eman diezagukeen edozein iradokizun, ideia eta kritika konstruktibo entzuteko. Debar guztiei animatzen diegu guztion artean osa dezakegun talde bikain honetan parte hartzera.

Dicen que la línea está formada por la unión de numerosos pequeños, a veces minúsculos puntos. Algo parecido sucede en la gestión de la política municipal; al menos eso es lo que todos pretendemos.

La instalación de nuevos contenedores para potenciar el reciclado de residuos, las reformas en el puente, la adecuación de los parques infantiles, la aprobación de un nuevo plan urbanístico para el barrio de Osio, la ampliación y mejora de nuevas políticas sociales y de ayudas a países del tercer mundo, y así un largo etcétera.

Todas estas pequeñas actuaciones son los pequeños puntos con los que este Ayuntamiento pretende crear una larga línea que haga de nuestro pueblo un motivo para que nos sintamos orgullosos.

Y aunque los vientos que soplan no son todo lo favorables que quisiéramos, estamos absolutamente seguros de que si la ciudadanía nos da su confianza, sacaremos adelante otros puntos, otros proyectos, éstos sí más importantes, que esperan en nuestra agenda para ser realizados en breve.

Una vez más, queremos transmitir a todos los y las debarras nuestro sentimiento de que para la realización de todos los proyectos y la mejora de las condiciones de vida de quienes habitamos en Deba, es necesaria la colaboración de tod@s. Este Ayuntamiento está abierto a todo tipo de sugerencias, ideas e incluso críticas constructivas de cada uno de los vecino@s de Deba. Animamos a todos ell@s a formar parte de ese gran equipo que podemos formar entre tod@s.

# BARATZA PROIEKTUA

## HUERTA SOCIAL



Joan den irailean Debako Udaleko gizarte zerbitzuek eta Karitasek erriberan baratza proiektua jarri zuten martxan 1000 m²ko lur sailean.

Proiektu hau laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasunak dituzten pertsonei zuzenduta dago; autonomia pertsonalaren garapenerako baliabideak eskaintzen zaizkie eta integrazio soziokulturala ahalbidetzen die.

Baratza proiektua martxan jartzeko Oñti eta Lazkaoko esperientziak hartu dira eredutzat. Karitaseko bi monitoreen gidaritzapean, Deban erroldatuta dauden 5 pertsona ari dira lanean; azak, porruak, babak, tipulak, etab. landatzen.

Tresneria, negutegi eta ur depositaren erabileraz gain, barazkiak landatzeko teknikak ikasten ari dira. Jasotako uzta herriko elikagai bankura eramango da eta bertan behar dutenen artean banatzeaz arduratuko dira.

El pasado mes de septiembre, el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Deba y Cáritas Parroquial, pusieron en marcha un proyecto de “Huerta Social”. Dicha huerta, situada en la ribera del Deba, cuenta con 1000 m² y en ella participan personas en situación desfavorecida. Mediante este proyecto se pretende la integración socio-cultural y socio-laboral de dichas personas y, en consecuencia, su autonomía personal.

Para la realización de la huerta debarra se tomó como modelo las existentes en Oñati y Lazkao. Está dirigida por dos monitores voluntarios de Cáritas Parroquial y en ella trabajan cinco personas dedicadas al cultivo de hortalizas como berzas, puerros, alubias, cebollas, guisantes, etc.

Además del manejo de las herramientas, el invernadero y el depósito de agua, los participantes en el proyecto están aprendiendo técnicas para el cultivo de verduras. Los productos recolectados en la huerta ribereña tienen como destino el banco de alimentos de Cáritas Parroquial local, entidad que se encarga de distribuirlos entre las personas necesitadas.

# Gizarte lankidetzarako udal kontseiluaren sorrera

## Creación del Consejo Municipal de Cooperación Social



Mundua globalizatzen ari da, baina herrialde edo eta zona pobreen eta aberatsen arteko aldea mantendu edo handituz doa.

"Mundu" aberats edo garatuak erabaki zuen nazioarteko erakunde eta hitzarmenen bidez beren administrazioen aurrekontuen %0,7 herrialde pobreei (edo garapenbidean daudenei) laguntzeko erabiltzea. Baina guztiek ez dute beti sinatutakoa bete. Krisialdi ekonomikoak gainera, gutxien dutenekiko elkartasun eza handitzea ekarri du.

Gure inguruko udalerri askok laguntza horiek murriztu dituzte, zenbaitek kendu ere bai. Debak, zailtasunak zailtasun, urtetan eutsi dio konpromiso honi eta **50.000 euro pasatxo bideratu ditu lankidetzarako proiektuetara**. Besteak beste, Haiti, Palestina, Nikaragua, Mali, Guatemala eta Saharan.

El mundo se globaliza pero el abismo entre países y/o zonas pobres y ricas se mantiene, cuando no se hace aún mayor.

El "mundo" rico o desarrollado se "impuso", a través de organismos internacionales y acuerdos, destinar el 0,7% de los presupuestos de sus administraciones a ayudar a los países pobres (en vías de desarrollo) y a mejorar sus condiciones. Pero no siempre tod@s han cumplido lo firmado. Incluso la crisis económica nos ha vuelto más insolidarios con los que menos tienen.

Muchos municipios de nuestro ámbito han reducido la cuantía de la ayuda, cuando no suprimido. Deba, a pesar de las dificultades, ha mantenido el compromiso dedicando una cantidad de algo más de **50.000 euros a proyectos de cooperación**. Algunos de los lugares en los que se ha intervenido a través de los años han sido: Haití, Palestina, Nicaragua, Mali, Guatemala y Sahara.

Duela gutxi, Udalak erakunde berri bat sustatu du: **Gizarte Lankidetzarako Udal Kontseilua**. Ekarpen ekonomikoaz haratago joan nahi da, eta asmoa da mota honetako proiektuetan edo elkarteetan parte hartzen duten herritarrentzat topagune izatea, elkar ezagutu, indarrak metatu eta ideiak adosteko.

Kontseiluak egin zuen lehenengo bileran, 12 pertsona bildu ziren. Bakoitzak bere iritzia eman zuen eta, azkenean, erabaki zuten udal arautegi bat prestatzen hastea, herriko eragileek bultzatutako proiektuak eta esperientziak lehenestea, sentsibilizazioa indartzea eta gure elkartasunaren bidez martxan jarri diren proiektuen berri ematea.

Recientemente, el ayuntamiento ha impulsado un nuevo organismo: **el Consejo Municipal de Cooperación Social**. Con ello se intenta ir más allá de la aportación económica; la idea es impulsar un lugar de encuentro para todas las personas del municipio implicadas en proyectos o asociaciones de este tipo, así como lograr un conocimiento mutuo, aunar esfuerzos y consensuar ideas.

Durante la primera reunión en la que se dio marcha a este Consejo participaron 12 personas, que intercambiaron sus puntos de vista y que a modo de conclusión acordaron trabajar en la creación de una normativa municipal, priorizar proyectos y experiencias impulsadas por agentes locales e impulsar la sensibilización, dando a conocer a la comunidad aquellos proyectos que se han puesto en marcha con nuestra solidaridad.



# Enplegu plana

## lan munduan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat

## Plan de empleo para personas con dificultades de inserción laboral



Beste behin ere, Debako Udalak Tokiko Enplegu Plana jarri du martxan, Gizarte Zerbitzuetako eta Ingurumena, Zerbitzuak eta Mantentze Lanetako sailen bitartez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jasoko du. Pasa den otsailaren 1ean, Deban erroldatutako eta Eusko Jaurlaritzak ezartzen dituen kontratazio baldintzak betetzen dituzten 5 pertsona (2 emakume eta 3 gizonezko) hasi ziren lanean, lau hilabetetarako kontratuekin.

Denbora honetan, herriaren hobekuntzarako eta mantenurako hainbat lan garatzea aurreikusten da; adibidez: anbulategiko aldapa, Marinel-anbulategi kaleetako irisgarritasun aldapak, Tene Mujika plaza berriztatzeko lanak, kiosko aurreko harriak birjartzea, Maxpe pasabidean hainbat konponketa, Agirretxeko igoerako eskudela margotzea, estolda-zuloen garbiketa, zebrabideak margotzea, PR bideetan sastraka kentzea edota eskolak eta euskaltegia margotzeko lanak, besteak beste.

Programa hau gizarteratzeko edota lan munduan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak babestera zuzenduta dago, gure herrirako hobekuntza lanen bitartez.

Un año más, el Ayuntamiento de Deba ha puesto en marcha el Plan de Empleo Local a través de los Departamentos de Servicios Sociales y de Obras, Servicios y Medio Ambiente, contando para ello con la subvención del Gobierno Vasco. El pasado 1 de febrero 5 personas (2 mujeres y 3 hombres), censadas en Deba y que cumplen los criterios de contratación establecidos por el Gobierno Vasco, comenzaron a trabajar, con un contrato de 4 meses de duración.

Está previsto que durante este tiempo desarrollen diferentes trabajos de mantenimiento y mejora del pueblo, como por ejemplo: la rampa del ambulatorio, varias rampas de accesibilidad en la calle Mariñel-ambulatorio, remozamiento de la plaza Tene Mujika, reposición de piedras frente al quiosco, arreglos varios en el paseo de Maxpe, pintado del pasamanos de la subida a Agirretxe, limpieza de sumideros, pintado de pasos de cebra, desbroce de caminos PR y trabajos internos como el pintado de las escuelas y del euskaltegi.

Este programa va dirigido a apoyar a personas con dificultades de inserción socio/laboral a través de acciones de mejora de nuestro pueblo.

# Erorketak prebenitzeko tailerrak pertsona helduentzat

## TALLER PARA PERSONAS MAYORES SOBRE PREVENCIÓN DE CAÍDAS

Udaleko Kirol eta Gizarte Zerbitzuen Sailak, Osakidetzako osasun zentroek eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak denbora daramate elkarlanean, hirugarren adinekoek jarduera fisikorako ohitura eta jokabide osasungarriak beregana ditzaten.

Guztiok dakigu jarduera fisikoa egitea adin guztietan dela positiboa eta onuragarria, betiere, gure bizitzako etapa bakoitzera egokitzen bada; egoera fisikoa ez ezik, psikologikoa ere hobetzen delako.

Horregatik jarri dira martxan Ttipi Ttapa programa eta hirugarren adinekoentzat gimnasia udal kiroldegian.

Hirugarren adinekoentzako ekimenen artean, **erorketak prebenitzeko tailerrak** egin dira.

Teknikari adituen eskutik, saio hauetan askotariko edukiak landu dira; hala nola, zahartze-prozesuak, zahartzeak dakartzan erortze-arriskuak, elikaduraren garrantzia, oinetakoak eta jantziak, etxe barruko ingurumen arriskuak eta bastoien eta makuluen erabilera egokia. Era berean, tailer praktiko bat egin da oreka eta malgutasunari buruz eta beste hainbat zerbitzu ere azaldu dira: telelaguntza, etxez etxeko laguntza eta suteen aurkako sistemak.

Aipatutako sailek gure helduen artean ariketa fisikoa bultztzen jarrituko dute, ideia eta proiektu berriak proposatuz.

Los departamentos de Deportes y Servicios Sociales del Ayuntamiento, junto con los Centros de Salud de Osakidetza y el Departamento de Salud Pública del Gobierno Vasco, llevan cierto tiempo colaborando en aras de introducir hábitos y actitudes saludables del mundo de la actividad física en la tercera edad.

Todos sabemos que la práctica de la actividad física es positiva y beneficiosa en todas las edades siempre que se respete y adecúe a cada etapa de nuestra vida, ya que no sólo mejora el estado físico sino también el psicológico.

Es por ello la implantación del programa Ttipi Ttapa, así como la gimnasia para la tercera edad que tiene lugar en el polideportivo municipal.

En este contexto de atención a las personas mayores se sitúa la organización del taller de **prevención de caídas**.

El programa, variado, fue impartido por técnicos expertos en la materia, quienes hablaron sobre el proceso de envejecimiento y los riesgos intrínsecos asociados a las caídas, la importancia de la alimentación, calzado e indumentaria, los riesgos ambientales dentro del hogar y el buen uso de apoyo de los bastones y muletas. Asimismo, se realizó un taller práctico sobre equilibrio y flexibilidad, y una exposición de servicios de tele-asistencia, ayuda a domicilio y sistemas antiincendios.

Decir por último que los departamentos citados seguirán fomentando la práctica de la actividad física para nuestros mayores con nuevas ideas y proyectos.



# Hondakinak jasotzeko txipdun edukiontzien bidezko sistema berria

## Nuevo sistema de recogida de residuos por el sistema de contenedores con chip



Debako eta Itziarko kaleetan BI EDUKIONTZI BERRI jarri dira. Bat **MARROI** kolorekoa, materia organikoa jasotzeko, eta bestea **GRISA**, errefuxa (birziklatu ezin daitekeen materiala) jasotzeko. Sistema honek Deba eta Itziarko herriguneetan sortzen diren hondakin guztiak gaika biltzea ahalbidetzen du.

Bi edukiontzi hauek irekitzeko EZINBESTEKOA da txartel elektronikoa erabiltzea, beraz, etxejabeek txartel hau izan beharko dute.

Helburua guztion artean gaur egungo %30eko birziklatze-tasa gainditzea da, **%60** lortu edo eta gainditzeko.

Sistema joan den otsailean ezarri zen eta sortu diren arazoak epe laburrean konponduko dira, guztion borondate onari eta ekarpenei esker.

Birziklapen-tasak hilero kalkulatuko dira eta herritarren parte hartze eta erantzun maila erakutsiko dute.

En las calles de Deba e Itziar se han instalado DOS NUEVOS CONTENEDORES. Uno de color **MARRÓN** para la recogida separada de la materia orgánica, y otro de color **GRIS** para la fracción no reciclable de la basura. Este sistema permite recoger separadamente todos los residuos generados por los vecinos y vecinas que vivan en los cascos de Deba e Itziar.

Estos dos nuevos contenedores se abren únicamente con tarjeta electrónica, por lo que será IMPRESCINDIBLE que todo el vecindario posea esta tarjeta.

El objetivo es superar entre todos la tasa de reciclaje actual del 30%, hasta alcanzar tasas que superen el **60%**.

El sistema fue implantado el pasado mes de febrero, y aunque pueden haber quedado algunos flecos pendientes, en breve esperamos sean solucionados con la buena voluntad y las aportaciones de todos/as.

La tasa de reciclaje que mensualmente se calcula, nos dirá el grado de participación e involucración de la ciudadanía.

# Pasonibela ezabatzea

## Supresión del paso sobre las vías del ferrocarril

Udala eta Eusko Trenbide Sarea (ETS) hizketan aritu ziren 2016an, trenbideko pasaguneak oinezkoentzat eta bidaiarientzat duen arriskua kentzeko asmoz.

ETS-k hainbat proposamen aurkeztu ditu eta Udalak proposamen horiek aztertu ere egin ditu, baina oraindik ez dira konponbide batera iritsi. Nolanahi ere, elkarlanean jarraitzen dute, pertsonak eroso mugitzea, ahalik eta oztopo gutxienekin eta pasonibela herrigunearen, ibaiaren eta portuaren arteko traba ez izatea ahalbidetuko duen proiektua lantzen.

Azken hilabeteetan ETS-ko zuzendariak aldatu eta arduradun berriak izendatu dituzte. Tamalez, berriro hasi beharra dago eta Debarako onuragarria izango den akordioa atzeratu egin daiteke.

Bestalde, argitu behar da trenbidearen trazatua Debako herrigune osoan bidezubi moduan goratzea ez dela inoiz onartu eta indarrean dagoen Hiri Antolamenduan ere ez dago jasota.

El Ayuntamiento y Eusko Trenbide Sarea (E.T.S.) han mantenido conversaciones durante el año 2016 con objeto de eliminar el riesgo que supone para los peatones y los viajeros el cruce sobre las vías del tren.

Aunque E.T.S. ha presentado varias propuestas que han sido analizadas por el Ayuntamiento, a día de hoy no se ha llegado a una solución satisfactoria para ambas partes. Actualmente se sigue trabajando conjuntamente en la búsqueda de un proyecto que posibilite a las personas una comunicación fluida, con la mínima interferencia, y que no suponga una barrera en la comunicación entre el núcleo urbano y la ría y el puerto.

Recientemente, los directivos de E.T.S. con los que el Ayuntamiento ha tratado durante los últimos meses, han sido sustituidos por nuevas personas con las que es preciso reiniciar la negociación, lo que puede retrasar un acuerdo beneficioso para el pueblo de Deba.

Por otra parte, es preciso aclarar que la elevación, tipo viaducto, del trazado del ferrocarril a su paso por toda la zona urbana de Deba nunca fue aprobada ni se encuentra recogida en la Ordenación Urbana actualmente vigente.



# Astillero kalea **oinezkoentzat** egokituko da

## PEATONALIZACIÓN DE LA CALLE ASTILLERO



Gaur egungo Udal Gobernuak, auzokoek azken urteetan behin eta berriz egin duten eskaerari erantzuteko asmoz, uste du beharrezkoa dela Astillero kaleko oinezkoen zirkulazioa hobetzeko neurriak hartzea; San Josepeko Gurutzearen eta Osio kalearen artean, hain zuzen ere. Osio eta Astillero kaleetan bizi direnek egunero erabiltzen dute zona hori. Gainera, Astilleron bizi direnentzat herrigunera etortzeko bide bakarra da.

Kalearen ezaugarriak direla eta (espaloi estua, 70 cm ingurukoa, eskailera irregularrak eta ibilgailuen joan-etorriak) oso zona deserosoa da, eta baita arriskutsua ere bertatik ibiltzeko, batik bat, ibilera murriztua duten pertsonentzat eta umeen aulkiekin edo erosketako karroarekin ibiltzen direnentzat. Askotan, oinezkoak apartatu egin behar izaten dira ibilgailuak pasa daitezen.

Udala aipatutako zatia oinezkoentzat egokitzeko proiektua prestatzen ari da. Pertsonek izango dute lehentasuna eta, motorrezko ibilgailuei dagokienez, baimendutakoak eta bertako garajeetara sartu behar dutenak bakarrik ibili ahal izango dira.

El Gobierno Municipal, en respuesta a una demanda vecinal constante en los últimos años, considera necesario tomar medidas que mejoren la circulación de los peatones en la calle Astillero, entre el tramo de la Cruz de San Josepe y la calle Osio. Una zona de uso diario para los vecinos y vecinas que viven en Osio y en la misma calle Astillero. Para estos últimos, es la única vía de comunicación con el resto del núcleo urbano.

Las características de la calle, acera estrecha (70 cm aprox.), escalones irregulares y el tránsito de vehículos, hacen muy incómodo e incluso peligroso caminar por la misma, especialmente para personas de movilidad reducida, con sillas de niños o incluso con el carro de la compra. En numerosas ocasiones se ven obligadas a apartarse para ceder el paso a los vehículos.

Se está proyectando la peatonalización del citado tramo, priorizando a las personas frente a los vehículos a motor y permitiendo el acceso sólo a garajes, así como a los vehículos autorizados.

Proiektuan honako hobekuntzak barneratzen dira:

- Galtzada berdindu egingo da. Hala, plataforma bakarra eratuko da eta oinezkoak nahierara ibiliko dira kalearen edozein aldetatik.
- Berdintzea etxeetako ezkaratzetarako sarbideetara moldatuko da.
- Zoladura berria oinezkoentzako jartzen den zoladura izango da.
- Gaur egungo espaloia kendu egingo da.
- Eskubanda ipiniko da aldapa handieneko gunean.
- Argiztapen berria.
- Estolderia berria, ur zikinak edo fekalak alde batetik eta euri urak bestetik joateko.
- Semaforoa instalatuko da Osio kalea eta errepidea elkartzen diren gunean, istripu arriskua murrizteko eta ibilgailuen sarrera-irteera errazteko.

Horren guztiaren ondorioz, hamabi bat aparkaleku desagertuko dira eta, horregatik, Udala negoziatzen ari da Osio kaleko hainbat orube eta eraikin hondaturen aldi baterako lagapena. Orube eta eraikin horiek, eraitsi eta gutxieneko egokitzapen-lan batzuen ondoren, behin-behineko aparkaleku moduan erabili ahal izango dira, harik eta Osiorentzat behin betiko plana gauzatzen den arte. Erabaki hori ere Udal honek hartuko du, antolamendu berriaren bidez.

Horren guztiaren berri bertan bizi diren herritarrei eta, oro har, herritar guztiei emateko asmoz, Udalak bilera informatiboa egingo du, proiektua izan bezain laster. Obrak aurten gauzatzea aurreikusten da.

El proyecto consistirá fundamentalmente en:

- Nivelación de la calzada creando una plataforma única que permita al peatón caminar libremente por todo el ancho de la calle.
- Nivelación adaptada a los accesos a los portales.
- Nuevo pavimento del tipo de zona peatonal.
- Eliminación de la acera actual.
- Colocación de barandilla pasamanos en el tramo de mayor pendiente.
- Nuevo alumbrado.
- Nuevo alcantarillado con separación de las aguas sucias o fecales de las de pluviales.
- Instalación de semáforo en la conexión de la calle Osio con la carretera para reducir el riesgo de accidentes y facilitar la entrada y salida de automóviles.

Esta actuación va a suponer la eliminación de unos doce aparcamientos, para lo cual el Ayuntamiento está negociando la cesión temporal de varios solares y edificios ruinosos en la calle Osio, que previa demolición y un acondicionamiento mínimo, se podrán utilizar como aparcamientos provisionales hasta que llegue la solución definitiva para Osio con la nueva ordenación, también aprobada por esta corporación.

Al objeto de informar de todo ello a los vecinos afectados, así como al resto de los habitantes del municipio, el Ayuntamiento realizará una reunión informativa, una vez redactado el proyecto. Se prevé que las obras se ejecuten durante este año.



# Hirigintza aldaketa **Osio gunean**

## Modificación urbanística para el área de Osio



Udaleko Osoko bilkurak, 2016ko abenduaren 28an eginiko bileran, aho batez erabaki zuen Osio guneari buruzko hirigintza antolamendua aldatzea, Gobernu Taldeak hala proposatuta.

Horrenbestez, berriro ekingo zaio Osioko ibarbidea garatzeari eta hobetzeari. Lan horiek geldirik egon dira 2009az geroztik, epai baten ondorioz aurreko antolamendua indargabetuta geratu zelako eta aurreko udal-gobernuek ez zutelako inolako erabakirik hartu gaia konpontzeko, eta ez aurrera ez atzera egon da, hirigintza aldetik erabat geratuta, alegia.

### Aldaketa garrantzitsuak

Aurreko antolamenduan, 310 etxebizitza berri aurreikusten ziren, gutxi gorabehera. Ondorioz, neurriz kanpo handituko zen etxebizitza-kopurua, eta ibarbide estu honek 1.000 bizilagun izango zituen. Hori ikusita, Udalak berriz aztertu du gune honetarako antolamendua.

Azterketa sakon baten ostean, Udalari iruditu zaio aurreikusitako biztanle-kopuru hori gehiegizkoa dela eremu horretarako, eremu estua eta ospela delako. Hori dela eta, pentsatu du kopurua nabarmen txikitu behar dela, gunea bertako bizilagunentzat ingurune atseginagoa, eta etorkizunean ere, bizitzeko leku egokia izan dadin.

Hala, aurreikusitako neurriz kanpoko eraikigarritasun hura murriztu egin da. Orain 20.041 $m^2$ko bizitegi erabilerarako azalera izango du (7.812 hiri lurzoruan eta 12.859 lurzoru urbanizagarrian) eta aurreikusitako etxebizitza-kopurua murriztu egin da: 310etik 238ra, gutxi gorabehera, hau da, %24a murriztu da.

En el Pleno municipal celebrado el día 28 de diciembre de 2016, a propuesta del equipo de Gobierno, se aprobó por unanimidad la modificación de la ordenación urbana del área de Osio.

Con esta aprobación se abre camino para el desarrollo y mejora de la vaguada de Osio, que se encontraba detenido desde el año 2009 tras una sentencia que anulaba la anterior ordenación y sin que anteriores Corporaciones hubieran tomado ningún acuerdo definitivo para resolverlo, por lo que la zona se encontraba en un impasse que condicionaba totalmente su futuro urbanístico.

### Cambios importantes

La ordenación anterior preveía 310 nuevas viviendas aproximadamente. Ello suponía un incremento desmesurado del número de viviendas sobre lo que actualmente existe construido y esta estrecha vaguada podría llegar a tener, junto con los actuales, cerca de 1.000 vecinos y vecinas, lo que ha llevado al Ayuntamiento a reconsiderarla totalmente.

Tras un exhaustivo estudio ha considerado que este número de habitantes previsto es excesivo para las características del lugar por ser zona estrecha y sombría, y ha considerado que es necesario reducirlo de forma importante para conseguir un diseño urbano más humano y amable que permita obtener un área con buenas características de habitabilidad en el futuro.

Por este motivo, se ha realizado una reducción de la edificabilidad prevista, pasando a una superficie de uso residencial habitable (urbanística) de 20.041 $m^2$ (7.182 en suelo urbano y 12.859 en suelo urbanizable), por lo que el número de viviendas previstas se ha reducido de 310 a 238 aproximadamente, lo que supone una disminución del 24 %.

Las alturas de los edificios se han rebajado a planta baja y 5 alturas, y planta baja y 6. Las Viviendas de Protección Oficial (VPO) serán en total 103, y las de precio tasado (VPT) 48.

También se ha ampliado el número de plazas de garaje, que será será de 518, resultando 2,18 plazas por cada vivienda, de forma que haya disponibles garajes para ser adquiridos por vecinos de otras calles del núcleo urbano, lo que contribuirá a reducir el problema de aparcamiento.

Era berean, eraikinen garaiera jaitsi egin da: behe solairua eta bost solairu eta behe solairua eta sei solairu. Babes Ofizialeko 103 etxebizitza eta prezio tasatuzko 48 etxebizitza eraikiko dira.

Halaber, garaje-plazen kopurua handitu egin da, 518 plaza egingo dira, hau da, 2,18 plaza etxebizitza bakoitzeko. Hiri-eremuko beste kaleetan bizi direnek aukera izango dute garaje-plazak eskuratzeko eta, horri esker, aparkatzeko arazoak gutxituko dira.



**Evolución comparada de los parámetros urbanísticos:**

| | NNSSP 1985 | | | | NN.SS.P. 2007 | MODIFICACIÓN Nº 5 2016 | | | DIFERENCIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | AU16 | AU17 | AU18 | AU22 | AU12 | AU12 | SECTOR 2 | AU22 | 2007-2016 |
| | 31.569 | | | | 37.057 | 33.777 | | C | -3.280 |
| Superficie del ámbito ($m^2$) | 2.056 | 1.514 | 13.625 | 14.374 | 37.057 | 10.927 | 22.850 | C | -- |
| Suelo urbano ($m^2$) | 2.056 | 1.514 | 13.625 | 14.374 | 37.057 | 10.927 | -- | -- | -26.130 |
| Suelo urbanizable ($m^2$) | -- | -- | -- | -- | -- | -- | 22.850 | -- | +22.850 |
| Edificabilidad (t) sobre rasante ($m^2$) | -- | -- | -- | -- | 51.000 | 9.925 | 18.228 | C | -22.847 |
| Edificabilidad $m^2$/ $m^2$ (s) | 4,6 | 6 | 2,4 | 0,1 | 1,45 | 1,06 | 0,90 | C | --- |
| Edificabilidad (t) vivienda protegida | -- | -- | -- | -- | 14.400 | 3.192 | 10.716 | -- | -492 |
| VPO $m^2$<br>VPT $m^2$ | -- | -- | -- | -- | 7.200<br>7.200 | 1.596<br>1.596 | 7.858<br>2.858 | -- | +2.254<br>-2.746 |
| Número de viviendas totales | -- | -- | -- | -- | 310 | 80 | 158 | -- | -72 |
| Número de viviendas protegidas | -- | -- | -- | -- | 93 | 32 | 119 | -- | +58 |
| VPO<br>VPT | -- | -- | -- | -- | 62<br>31 | 16<br>16 | 87<br>32 | Δ66%<br>Δ55% | +41<br>+17 |

C: Consolidado en sus actuales condiciones.

## Maxpe etxea



Maxpe etxea eta ibai ondoan duen lorategia ere sartu dira Udalarentzat doako lagapen elementu gisa. Horrenbestez, eremua urbanizatuko duten sustatzaileek konpentsatu egin beharko diote etxearen jabeari, gero Udalari lagatzeko. Etxea Ondare Historikotzat kalifikatua dago eta ezin da eraitsi.

Etxea behar bezala prestatu eta, etorkizunean, ibaiaren erabilerarekin lotutako kultura eta kirol ekipamenduak instala daitezke bertan edo beste edozein erabilera eman dakioke.

Azken baten, eginiko aldaketei esker, zona hobetu egingo da hirigintza aldetik begiratuta eta jendeak bizi kalitate hobea izateko aukera izango du.

## Casa Maxpe

Asimismo, se incluyen la casa de Maxpe y su jardín junto a la ría como elementos de cesión gratuita al Ayuntamiento. Así, los promotores que vayan a urbanizar el ámbito deberán compensar a la propiedad de la casa (que está protegida como Patrimonio Histórico y no se puede derribar) para cederla posteriormente al Ayuntamiento.

Este edificio, convenientemente acondicionado en el futuro, puede acoger equipamientos culturales y deportivos vinculados al uso de la ría, o cualquier otro uso a determinar en su momento.

Como resumen, los cambios introducidos suponen una mejora urbanística de la zona y mejores perspectivas de calidad de vida de los ciudadanos.

# Hobekuntza lanak zubi zaharrean

## Mejoras en el puente de la ría





Mutriku eta Deba arteko zubi zaharrak 150 urte bete ditu. Hori dela eta, Debako Udalak, Mutrikuko Udalarekin batera, zenbait neurri hartu nahi izan ditu, bere estetika eta funtzionaltasuna hobetzeko.

Alde batetik, oraingo argitegia aldatuko dugu, hobekuntza estetiko eta energetikoak lortu nahian. Horretarako, 25.000 euroko aurrekontua onartu da; Debako Udalak 2/3 ordainduko du eta Mutrikukoak, beste 1/3. Argiteri sistema aldatu ondoren, energia-kontsumoa %80 murriztuko da.

Bestetik, zubiaren irudia txukuntze aldera, egun agerian dauden gas eta saneamendurako hodiak ezkutatzeko Naturgas eta Ur-Zerbitzuekin kudeaketa lanak egin dira.

Pasado ya el 150 aniversario de la inauguración del puente que une Deba y Mutriku, desde el ayuntamiento de Deba, con la colaboración del de Mutriku, están planteadas una serie de medidas encaminadas a mejorar la estética y la funcionalidad del mismo.

Por un lado, se va a proceder a un cambio en la iluminación existente buscando mejoras estéticas y energéticas con un presupuesto total de 25.000 euros, de los cuales Deba se hará cargo de 2/3 y Mutriku de 1/3. El cambio de sistema de iluminación supone un ahorro del 80 % en energía.

También se están haciendo gestiones tanto con Naturgas como con Ur-Zerbitzuak para eliminar el impacto visual que producen las tuberías de saneamiento y gas que discurren sobre el puente.

# Haurrentzako parkeak

## Parques infantiles



Azken urtean Debako Udalak, hainbat bizilagunen laguntzaz, haurrentzako jolas parkeak nola berritu aztertu du (Zumardiko parkea, Mogel eta Itziarko bidearen arteko gunea eta Osio).

Jolas parke horien beharrak eta gabeziak aztertu ostean eta hainbat aurrekontu baloratu eta gero, obrak Urbabil 2000 S.L. enpresari esleitu zitzaizkion, 119.994 eurotan.

Dagoeneko enpresak burutu ditu lan guztiak eta haurrentzako hiru parkeak, Zumardia, Mogel eta Osio, erabiltzeko prest daude.

Desde el consistorio debarra, y con la colaboración desinteresada de algunos vecinos y vecinas de la localidad, se ha estudiado durante el útimo año la remodelación de tres zonas para el uso como parque infantil (alameda, cruce de Mogel con Itziarko Bidea y Osio).

Tras analizar las necesidades y carencias de los parques y tras valorar varios presupuestos, las obras fueron adjudicadas a la empresa Urbabil 2000 S.L., por un importe de 119.994 euros.

Dicha empresa ya ha realizado los trabajos de renovación integral de los citados tres parques infantiles y la ciudadanía ya puede disfrutar de ellos.

# Santa Katalina

## Aisialdirako gune publikoa

## Zona de esparcimiento público

10-054 lurzatiak 63.468 $m^2$-ko azalera du. Bertan daude Santa Katalina baseliza eta Ermita Berri baserriaren horma zaharrak.

1869. urtean, baseliza eta ondoko baserriaren hondamen-egoera ikusita, eta eraberritze-lanek eragingo zuten zama ekonomikoa kontuan izanik, Udalak Lersundi Teniente Jeneralari ematea erabaki zuen, beraren babespean baitzegoen.

Gaur egun, baseliza eta haren lursailak Alfonso del Valle Lersundirenak eta Mª Pilar Azkarraga Pérez-Caballerorenak dira.

Lurzati hori Udalaren esku lagatzeko, 2002ko abenduaren 27an, Debako Udalak jabeekin hitzarmen bat izenpetu zuen. Baina azkenean ez zen gauzatu. Gero, N-634 errepidearen gainean egurrezko eskubanda instalatu behar zutela eta, Udala harremanetan jarri zen berriro jabeekin.

Bai baseliza eta baita haren lursailak ere gune natural babestu batean aurkitzen dira eta paisaia aldetik interes handikoak dira. Baina zoritxarrez, azken urte hauetan, inguru hori nabarmen hondatu da, batez ere, baselizaren ingurua abeltzaintzarako erabiltzen delako.

Joan den urtean azterlan bat egin zuten ingurumen eta paisaiaren ikuspegitik eraberritu, eta Santa Katalinan aisialdirako gune publikoa sortzeko. Azterlan horrek 8.712 euroko kostua izan zuen, eta horietatik 7.200 euro Gipuzkoako Foru Aldundiak jarri zituen.

La parcela 10-054 donde se sitúa la ermita de Santa Catalina, así como los restos del caserío Ermita Berri, tiene una superficie de 63.468 $m^2$.

En 1869, ante el estado ruinoso en que se encontraban tanto la ermita como el caserío anexo, y ante la carga económica que representaba la restauración, el Ayuntamiento, bajo cuyo patronato se encontraba la ermita, decidió donar ésta al Teniente General Lersundi.

En la actualidad, la ermita y sus terrenos pertenecen a Alfonso del Valle Lersundi y a Mª Pilar Azkarraga Pérez-Caballero.

El 27 de diciembre de 2002, el Ayuntamiento de Deba firmó con la propiedad un convenio para la cesión de la parcela que finalmente no llegó a materializarse. Posteriormente, con motivo de la instalación de la pasarela de madera sobre la N-634, el Ayuntamiento retomó el contacto con los propietarios.

Tanto la ermita como sus terrenos se encuentran en un espacio natural protegido y de gran interés paisajístico. Pero desgraciadamente, durante los últimos años el lugar se ha degradado de forma notable, sobre todo, debido al uso ganadero que se realiza en el entorno próximo a la ermita.

El pasado año se realizó un estudio para la restauración medioambiental y paisajística, y la adecuación de una zona de esparcimiento público en Santa Catalina. El estudio costó 8.712 euros, de los cuales 7.200 fueron subvencionados por la Diputación Foral de Gipuzkoa.



**Hiru jarduera-eremu** bereizi proposatzen ditu azterlan horrek:

- Kanpoaldea, itsaslabarretik hurbilen dagoena; bertan egungo egoera sendotzea proposatzen da.

- Ganaduarentzako eremu irekia, lurzatiaren zatirik handiena hartzen duena; bertan, orain arteko ganadu-erabilerak jarrai dezala proposatzen da, hesia tokiz aldatzea, eremu horretara sarbide zuzena izateko, eta ganaduarentzako urhargunea bertaraino eramatea. Bertatik pasatzen da GR-121 bidea, eta bidaztiak zelaietatik desbideratu ez daitezen, heskaia landatzea proposatzen da.

- Ganadurik gabeko eremua, eremurik garaienean, baseliza dagoen tokian; "Santa Katalina begiratokia" aisialdirako eta interpretaziorako gunea egitea proposatzen da. Eremu honetan Ermita-Berri baserriaren hormak finkatzea proposatzen da, eta gainera, bertan dagoen iturria ordezkatu, konpondu eta tokiz aldatzea, eta Lasturtik ekarritako harrizko bost totem kokatzea, baselizako eta baserriko sarrerako fatxadarekin batera interpretazio-guneari atxikita harreragune zirkularra osatuz.

Azterlan hori Gipuzkoako Foru Aldundiari eta lursailen jabeei aurkeztu zaie, eta azken horiekin adostasun batera iristea espero dugu, egitasmoa gauzatu ahal izateko.

El estudio plantea **tres ámbitos de actuación** diferenciados:

- La zona exterior, la más cercana al acantilado, en la que se plantea la consolidación de la situación actual.

- La zona abierta para el ganado, que ocupa la mayor parte de la parcela, y en la que se plantea la continuidad del uso ganadero existente, la modificación del vallado para tener acceso directo al área y el llevar una toma de agua para el ganado. Por este área transcurre la GR-121, y con el fin de evitar que los caminantes se desvíen por la campa se propone la plantación de seto vivo.

- La zona exenta de ganado, en el área más elevada, donde se encuentra la ermita y donde además se plantea el área de esparcimiento e interpretación “Santa Katalinako begiratokia”. En este área se plantea la consolidación de los muros del caserío Ermita-Berri, la sustitución, mejora y cambio de ubicación de la fuente existente y la colocación de cinco tótems de piedra de Lastur, que junto a la fachada de acceso a la ermita y al caserío genera un espacio circular de acogida al área de interpretación.

El estudio ha sido presentado en la Diputación Foral de Gipuzkoa y a los propietarios del terreno, con los que esperamos llegar a un acuerdo que permita la ejecución del mismo.

# Debak gero eta bisitari gehiago erakartzen ditu

# Deba atrae cada vez a más visitantes




2016an etorritako bisitarien kopurua % 12,01 hazi zen 2015. urtearekin alderatuta. Debako turismo-bulegoak **30.383 bisitari** izan zituen, 2015ean epealdi berean izan zituenak baino 3.257 gehiago, eta bereziki azpimarratzekoa da atzerriko turista kopuruak izandako igoera, % 34,39. Era berean, Estatutik etorritako bidaiariek ere igoera nabarmena izan zuten, % 18,08koa, hain zuzen ere.

Ekainean, uztailean eta abuztuan (igandeetan izan ezik), turismo-bulegoa ez zen eguerdian itxi eta 10:00etatik 20:00etara zabalik egon zen; era horretan, gutxitu egin ziren ilara luzeak, batez ere arratsaldeko lehen orduan sortzen zirenak.

**Done Jakue Bidea** eta **Euskal Kostaldeko Geoparkea** izan ziren gure herria bisitatzera etorri zirenen erakargarri turistiko nagusiak. Horrela, esate baterako, Euskal Kostaldearen Geoparkera egindako bisita gidatuek % 44ko igoera izan zuten 2015. urtearekin alderatuta. Guztira 14.076 pertsonek hartu zuten parte Geoparkeak programatutako bisita gidatuetan.

La afluencia de visitantes durante el 2016 aumentó un 12,01% con respecto a 2015. La oficina de turismo de Deba recibió un total de **30.383 visitantes**, 3.257 más que en el mismo periodo en 2015, destacando especialmente la subida del número de turistas extranjeros, un 34,39%. En cuanto a viajeros estatales, el ascenso fue del 18,08%.

Durante los meses de junio, julio y agosto (excepto los domingos) la oficina de turismo amplió su horario, abriendo de forma ininterrumpida de 10:00 a 20:00 h. Con esta medida se han reducido las largas colas que se producían sobre todo a primera hora de la tarde.

El **Camino de Santiago** y el **Geoparque de la Costa Vasca** fueron el principal reclamo turístico para aquellas personas que visitaron nuestra localidad. Así, las visitas guiadas del Geoparque de la Costa Vasca experimentaron una subida del 44% respecto al año 2015. Un total de 14.076 personas participaron en las visitas guiadas programadas por Geoparkea

Okupazio-datuei dagokienez, udalerriko ostatu turistikoak % 100eko okupaziora iritsi ziren abuztuan.

Baina datu onak izan arren, lehiaketa-prozedura luze baten ondoren, Aisia Deba hotela itxi egin da. Hotelaren benetako egoeraren berri laster jakitea espero du Udalak.

Beste alde batetik, eta Euskadiko beste hainbat herritan bezala, erabilera turistikorako etxebizitzen eskaintza gero eta handiagoa da. Horrekin loturik, 2016ko abuztuaren 31n, uztailaren 28ko turismoaren 13/2016 Legea sartu zen indarrean. Euskadiko jarduera turistikoak arautzea helburu duen arau berri honek ustiapen-helburuaren arabera sailkatzen ditu ostatu-enpresa turistikoak, eta alde horretatik, figura berri batzuk finkatzen ditu, hala nola erabilera turistikorako etxebizitzak eta etxebizitza partikularretan ostaturatzea. Hala, erabilera turistikorako xedatutako etxebizitza guztiek Euskadiko enpresa eta jarduera turistikoen erregistroan inskribatuta egon behar dute, ostatu horiek kudeatzen dituzten pertsonak bezalaxe.

En cuanto a los datos de ocupación, los alojamientos turísticos de la localidad llegaron a alcanzar el 100% de ocupación durante el mes de agosto.

Pero a pesar de los buenos datos, tras un largo proceso concursal, se ha cerrado el hotel Aisia Deba. El ayuntamiento espera poder conocer en breve la situación real del hotel.

Por el contrario, y al igual que en muchas localidades de Euskadi, son más las viviendas que se están destinando a usos turísticos. A este respecto, el 31 de agosto de 2016 entró en vigor la ley 13/2016, de 28 de julio de turismo, que tiene como objeto regular la actividad turística de Euskadi. La nueva normativa clasifica las empresas turísticas de alojamiento según su objeto de explotación y regula nuevas figuras como las viviendas para uso turístico y el alojamiento en viviendas particulares. De esta forma, todos los pisos destinados a uso turístico deben estar inscritos en el registro de empresas y actividades turísticas de Euskadi, al igual que las personas que gestionan dichos alojamientos.

## 2017ko udal gida berria
## Nueva guía municipal de 2017




Debako Udalak 2017ko udal gida berria argitaratu du. Eskuorri honek gure udalerria oso-osorik ezagutzeko aukera eskaintzen digu. Izan ere, herriko baliabide guztiak jasotzen ditu; zerbitzuen gida osoaz gain, hainbat informazio topatuko dugu jatetxe, ostatu, merkatari, profesional, industria eta herriko gainerako baliabide turistiko guztiei buruz.

El Ayuntamiento de Deba ha publicado la nueva guía municipal de 2017. Este folleto nos ofrece la posibilidad de descubrir nuestro municipio en su totalidad. De hecho, recoge todos los recursos de la localidad; además de la guía completa de servicios, encontraremos información en torno a restaurantes, alojamientos, comerciantes, profesionales, industria y todos los recursos turísticos de la villa.

## FITUR 2017

Madrilgo Nazioarteko Turismo Azoka, FITUR, galdu ezinezko hitzordua dugu turismo-azoken egutegiaren barruan. Aurten, Debako eskaintza turistikoak presentzia bikoitza izan du azoka honetan; ohikoa den moduan, Euskadi-Basque Country standaren barruan ordezkaritza bat eduki du, Euskal Kostaldeko gainerako eskaintza guztiaren ondoan, eta beste alde batetik, Euskal Kostaldeko Geoparkearen bitartez, UNESCOren Europako Geoparke Sarearen standaren barruan.



La Feria Internacional de Turismo de Madrid FITUR es una cita ineludible dentro del calendario de ferias de turismo. Este año, la oferta turística de Deba ha contado con una doble presencia en esta feria; como es habitual, ha estado representada dentro del stand Euskadi-Basque Country junto al resto de la oferta de la Costa Vasca, y por otro lado, a través del Geoparque de la Costa Vasca, dentro del stand de la Red Europea de Geoparques UNESCO.

# Hobekuntzak Done Jakue Bidean

## Mejoras en el Camino de Santiago



Urtetik urtera gero eta erromes gehiagok aukeratzen dute Done Jakue bidea Unescok 2015eko uztailean Munduko Ondare izendatutako Kostaldeko Bidetik egitea. Joan den 2016. urtean, gure herritik 12.250 erromes pasa ziren, 2015ean baino ia % 18 gehiago.

Gaur egun Deba Done Jakue bideko toki estrategikoa bada, zalantzarik gabe, erromesentzako kalitatezko aterpetxe bat daukagulako izan da. Baina ostatua bezalaxe, bidearen egoera eta segurtasuna ere funtsezkoak dira erromesentzat.

Bai Debako Santiago Bideko Lagunen Elkarteak eta baita Udalak ere Euskadiko Done Jakue Bideko arduradunei eskatu diete Mardari eta Itxaspe arteko trazaketaren segurtasuna hobetu beharra zegoela. Bidearen zati horretan N-634 errepidea gurutzatzera behartuta zeuden erromesak, eta errepidearekiko paralelo 570 metro inguru egin ondoren, AP-8 gaineko zubia zeharkatzeko, errepidearen bazterbideetatik joan behar izaten zuten, inolako babesik gabe.

Cada año son más los peregrinos que deciden realizar la ruta jacobea por el Camino de la Costa, declarado Patrimonio Mundial por la Unesco en julio de 2015. Durante el pasado año 2016 pasaron por nuestra localidad más de 12.000 peregrinos, casi un 18% más que en 2015.

No cabe duda que disponer de un albergue de peregrinos de calidad ha sido la razón principal por la que Deba es hoy un lugar estratégico en el Camino. Pero, al igual que el alojamiento, el estado del camino y la seguridad son fundamentales para el peregrino.

Tanto desde la Asociación de Amigos del Camino de Deba como desde el Ayuntamiento, se venía solicitando a los diferentes responsables del Camino de Santiago en Euskadi la necesidad de mejorar la seguridad del trazado entre Mardari e Itxaspe. Un tramo donde el Camino obligaba a los peregrinos a cruzar la carretera N-634 y tras discurrir en paralelo, en torno a 570 metros, debían atravesar el puente que supera la AP-8 por los arcenes de la carretera, por entonces sin protección alguna.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura Sailak egindako lanei esker, nabarmen gutxitu dira erromesek, oinezkoek eta txirrindulariek jasan behar zituzten arriskuak.

Proiektu hori Urbycolan enpresak egin du, Gipuzkoako Foru Aldundiak 185.225,07 euroko zenbatekoan (BEZa barne) esleitu ondoren. Bide-tarte horretako zati handi batean oinezkoentzako pasabidea egin dute, euste-sistemen bitartez babestua (1,5 metroko zabalera duena), erromesek errepidea gurutzatu behar zuten tokian oinezkoentzako babesgune bat atondu da, eta seinale berriak jarri dira, inguru horretan abiadura-muga 50 km/h-ra murriztuz.

Gracias a los trabajos realizados por el Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa, se minimizaron de manera considerable los riesgos a los que se tenían que enfrentar los peregrinos, viandantes y ciclistas.

El proyecto ha sido ejecutado por Urbycolan, empresa a la que la Diputación Foral de Gipuzkoa adjudicó la obra por un importe de 185.225,07 euros, IVA incluido. Durante la mayor parte del tramo se ha creado un itinerario peatonal protegido por unos sistemas de contención (de 1,5 metros de ancho), se ha habilitado una especie de isleta en el punto de la carretera donde los peregrinos tenían que cruzar, y se ha instalado una nueva señalización que limita la velocidad en la zona a 50 km/h.



# GAZTEENTZAKO LOKALAK • LOCALES DE JÓVENES

## Debako gazteen lokaletako jarduerak arautuko dituen ordenantza

## Ordenanza reguladora de actividad de los locales de jóvenes en Deba

Udalak gazteen topagune gisa erabiltzen diren lokalekin bizikidetza-arazoak sortzen ari direla egiaztatu eta ziurtatu du.

Deba herri txiki bat da eta, negua luze joaten denez, elkartzeko, hizketan aritzeko, dibertitzeko edo, besterik gabe, duten denbora librea igarotzeko guneak behar izaten dituzte gazteek.

Baina lokal horietan izandako gorabehera eta gertaera batzuek lokalen erabilera hori arautzera bultzatu dute Udala. Ordenantza horren bitartez eztabaida eta liskar gehien sartzen dituzten gaiak, hala nola, lokal horien gainean kokatutako etxebizitzetako bizilagunei eragindako zaratak eta eragozpenak, arautzeaz gain, gazteen segurtasuna ere bermatu nahi da, su-itzalgailuak eta horrelakoen egoera kontrolatuz, baina baita aseguruak, larrialdietarako irteerak, bainugelak, hormak, zoruak edo sabaiak ere.

Ordenantza arau-emaile honen xedea ez da gazteen askatasuna murriztea, baizik eta erabiltzaileen aldetik erabilera seguru eta gizalegezko bat bermatzea, lokal horien legeegoera arautuz eta legeak babestutako jarduera zehatz baten barruan sartuz. Araudi horrek bizikidetza harmoniatsua ahalbidetuko du lokaletako erabiltzaileen eta bizilagunen artean, eta horixe da ordenantza honen helburu bakarra.

Udalak herritarren parte-hartzea eskatuko du, eta beren iritzia ematera animatu nahi ditu. Horrela, indarrak batu eta ahalik eta adostasun handiena izango duen ordenantza lortuko da.

El Ayuntamiento ha comprobado y constatado el problema de convivencia que se está generando en torno a los locales utilizados como lugar de encuentro para los jóvenes.

Deba es un pueblo pequeño y el invierno se hace largo para los jóvenes que necesitan de espacios para reunirse, debatir, divertirse o simplemente pasar el tiempo de ocio del que disponen.

Pero algunos incidentes y hechos sucedidos en estos locales han llevado a este Ayuntamiento a regular la utilización de dichos espacios. La regularización no sólo pretende tratar sobre los temas más debatidos y controvertidos, como los ruidos y molestias ocasionados a los vecinos de las viviendas situadas sobre estos locales. También pretende dar seguridad a los jóvenes, controlando la existencia y el buen estado de extintores, seguros, salidas de emergencia, baños, paredes, suelos o techos.

La intención de esta ordenanza reguladora no es coartar las libertades de los jóvenes, sino garantizar una utilización segura y cívica por parte de los usuarios, regulando la situación legal de estos locales, incluyéndolos en una actividad concreta que esté amparada por la ley. Esta regulación permitirá una convivencia armónica entre los usuarios de los locales y los vecinos, único fin de esta ordenanza.

El Ayuntamiento pedirá la participación de la ciudadanía, instando y animando a que cada uno dé su opinión, aunando así fuerzas para realizar una ordenanza lo más consensuada posible.



# Kultura-programaziorako plan berria

## Nuevo plan para la programación cultural






Debako Udala eta Kultur Elkartea elkarlanean ari dira kultur arloan ditugun premia eta gabeziak beteko dituen kultura-egitarau bat prestatzen; batik bat udazken, negu eta udaberriko hilabeteetarako.

Programak askotariko kultur ekitaldiak barneratuko ditu; hala nola, zinema, magia, musika, mikroantzerkiak, hitzaldiak, dokumentalak eta beste hainbat ikuskizun interesgarri.

Helburu horrekin, Kultur Elkarteak bere areto nagusiko ikus-entzunezko ekipoa berrituko du, eta Udalak kultura-ekitaldiak kontratatzeko diru-ekarpena egingo du.

Proiektu honek 2017. urtean ekingo dio bere ibilbideari, eta jendearen harreraren arabera, jardueren maiztasuna areagotu daiteke. Hasiera batean, kultura-ekitaldiak hilean behin egingo dira, eta aldez aurretik argitaratuko dira bai Debako kultura-agendan eta baita Udalaren (www.deba.eus) nahiz Kultur Elkartearen (www.ostolaza.org) webguneetan ere.

Ekitaldi gehienetan sarrera doan izango da, baina gerta liteke jarduera batzuetarako sarrera ordaindu behar izatea.

Espero dugu lantzen ari garen proiektu hau laster martxan ikustea eta Debako herritar guztiek gustuko izatea.

El Ayuntamiento de Deba, junto con Kultur Elkartea, está trabajando en la elaboración de un programa cultural que cubra las necesidades y carencias en ese ámbito, sobre todo durante los meses de otoño, invierno y primavera.

El programa incluirá diversas actividades culturales, con espectáculos como cine, magia, música, microteatros, charlas, documentales y otros espectáculos de interés.

Con ese fin, Kultur Elkartea realizará una inversión para remodelar el equipo audiovisual de su salón de actos y el Ayuntamiento aportará una dotación económica para la contratación de los eventos culturales.

Este proyecto iniciará su andadura en 2017 y en función de la aceptación del público la programación cultural podrá aumentar la frecuencia de actividades. En un principio, los eventos culturales se realizarán una vez al mes y se publicarán previamente en la agenda cultural de Deba y en la página web del Ayuntamiento (www.deba.eus) y de Kultur Elkartea (www.ostolaza.org).

La entrada será gratuita para la mayoría de los eventos y ocasionalmente se podría cobrar una simbólica entrada.

Se espera que este proyecto en el que se está trabajando vea la luz en breve y sea del agrado de todos los vecinos de Deba.



DEBAKO UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa